



### 3 GIZARTEA

## Omenaldia Elesperi hamahirugarren urteurrenean

Hamahiru urte igaro dira ETAK Froilan Elespe hil zuenetik. Gorazarre egin zioten familiak eta Gipuzkoa osoetik etorritako PSE-Eeko militanteek larunbat eguerdian Lasarte-Oriako hilerrian.



**Ostiralean martxoaren 28an, ez da TXINTXARRI-rik argitaratuko. Martxoaren 31ean izango da hurrengo zenbakia zuen etxean.**

### ORDU ALDAKETA



Larunbatetik igandera ordu aldaketa izango da: goizalderko 2:00etan 3:00ak izango dira.

## Gerra Zibileko aztarna baliotsuak

Armamentua, esku granada eta beste hainbat objektu aurkitu dira



Islada Ezkutuak taldeko kideak, Lasarte-Oria eta Donostiako alkateekin ostiraleko aurkezpenean.

Islada Ezkutuak oroimen historikoaren aldeko taldeak Andatza mendiko inguruan egindako aurkikuntza aurkeztu zuten ostiralean. Taldearekin batera Lasarte-Oria eta Donostiako alkateak eta Zubietako herri-batzordeko kideak izan ziren.

Islada Ezkutuak taldea Lasarte-Oriako Udala eta Foru Aldundiaren laguntzaz, oroimen historikoa bildu eta argitaratu ateratzeko lanean ari da. Hainbat atal jorratzen ditu eta horietako bat arkitektura aztarnen bilaketa da. Horregatik, testigantzei esker Zubietta aldean, Andatza mendiko inguruan 120 metroko lubakia aurkitu eta bertan garbiketa lanak egin dituzte.

Mailu Arruti taldeko kideak azaldu duenez, Usurbilgo herritarrek aurkitutako lubakia da.

Bertan Gerra Zibileko armamentua, esku granada eta beste hainbat objektu aurkitu ditu taldeak.

Islada Ezkutuak taldeko kideak aipatu zenez, aurkezpena egin behar izan dute esku granadaren aurkikuntzak bultzatuta. Ertzaintzak ostegunean esku granada modu kontrolatuan leheratu zuten. Bertan beste batzuk aurkitu daitezkeela ere ohartarazi zuten.

Horregatik, ingurura ez hurbiltzeko eskaera egin zieten taldeko kideak herritarrei

“arriskutsua izan daitezkeela”.

#### Gertakariak zehazteko

Joxe Agustin Mugaruza taldeko kideak azaldu zenez, sorpresa handia izan da lubakia eta 1936 urteko aztarna hauek aurkitzea. “Egin dugun lana emankorra izan da”, aipatu zuten.

Oraingo lanean jarraituko dute bertan gertatutakoak zehazteko. Ahozko informazioa, garaiko prentsa, artiboak, bibliografiak eta aurkitutako gauzak aztertu eta ahal duten informazio guztia batuko du Islada Ezkutuak taldeak.

Lubakia lehenengo lerroko postua ez zela ere aipatu zuten agerraldian, “tanteoakoa izan zitekeen edo zaintza posizio bat”.

Hala ere, aurkitutako aztarnen arabera, lubakian hainbat jende ibili zela baieztatu dezakete eta eremu aztertuz gero gauza gehiago ere aurki ditzakete.

#### Oroimen historikoa

Juan Karlos Izagirre Donostiako alkateak eta Fernando Iturralde Zubietako herri-batzordeko kideak eskerrak eman zizkieten taldeari egindako lanagatik.

Era berean, lanean jarraitza gongibatu eta oroimen historikoa berreskuratzea garrantzitsua dela azpimarratu zuten biek.

Honetaz gain, Islada Ezkutuak taldeko kideak Gerra Zibileko edo garaiko testigantzak dituzten herritarrei haiekin harenan jartzeko gonbita luzatu diete.

**ADURIZ DE LASARTE S.A**

Odolkia- Solomo ontzutua    Solomoa baraxuritan  
 Ebeko borroza    Tripakiak- Saibtxiak  
 Txistorra    Basurde burua  
    Baserri pateak

**BERTAKO FABRIKAZIOA**

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria  
 Tel: 943 361 278 - 943 361655 - 943 362451

**Bideo Lagunak**    **Maiatzak 31 arte soilik**

**¡MUGITU!**

PREZIOAK JAISTEN DITUGU  
 ERAKUSKETA ALDAKETAGATIK  
 DENA LIKIDATZEN DUGU

**TIEN 21**

## Adituak dio



**Enara Iregi**  
Kukuka Antzerki  
Eskolako irakaslea

**A**ntzerkia jolasa da. Antzerkia joko da. Antzerkia bizitza arruntari distira eskaintzea da. Baina, batez ere, antzerkia espresabidea da. Lotsak eskuineko sakelari eta urduritasuna ezkerrekoan gordeta, oholza gainera ateratzen gara, baruan daukaguna askatu eta gozatzeri. Eta askatasun individual zein kolektibo lortzen dugun, urte osoan zehar landutakoaren ordainetan.

Gure helburuak argiak dira. Batek, hizkuntzarekin ondo pasatzea, jolastea, gozatzea, hizkuntza hedatzea, esparri berriak ikertzea. Bigarrenik, "sorzalea"ren mito urruna haustea: edonor izan daitezke sorzalea, denok daukagulako zer esana ugari. Bakoitzari dagoen bide egokia bilatzea litzateke kontua. Lagurarenik, baliabide personal eta materialak ezagutzen lan egitea, alegia, "dagoena" eta "daukaguna" aprobetxatzen ikastea eta bakoitzaren mugak ezagutzea: "zer ahal dut?", "zer ezin dut?", "nola aprobetxatu dezaket dudana?", "nola bete, konpondu, ordezkatu eta aberastu ezin dudana?". Eta amaitzeko, zaletasunak esnatzea.

Gure eskolaren helburua, beraz, ez da bukaera dotore, garbi, konkretu eta gustuko batera ailegatzea. Horretarako, errepikapenak, entseguak eta askotan aspertzea baina ere beharrezkoak dira. Kurtsu amaierako emanaldia lanaren azken fasea da, urte osoan zehar jarduerari eta jolasei esker ikasitakoarekin sortutako lana. Finean, kurtsuon sukaldatzen aritu garen pastel erraldoiaren ginda. Horra garamatzen bidea da garrantzikoena, hau da, frogatzea, aldatzea, bilatzea, trukitzea, ikertzea eta azken finean, jolastea. Ikasle zein irakasleok honekin ikasi eta gozatu dugun gehien. Eta gozamen hori lortzea da gure xedea.

## Antzerkiaren eguna

**L**arunbatean uraren nazioarteko eguna zela eta, hainbat ekintza antolatzen zirela entzun genuen, Albesteak ez zuten aparteko ezer iragartzen. Baina bulegoan nazioarteko egunen inguruko solasa sortu zen eta zenbat nazioarteko egun ezagutzen genituen zerrendatzen hasi ginen: IHESArean Kontrako Borrokarren Eguna, Liburuaren Eguna, Emakumearen Eguna, Euskararen eguna...

Internetera jo eta hortxe agertu zen zerrenda luzea. Tarteetan mota guztietakoak daudela konturatu egin ginen. Hori bai, ezagunak gutxi batzuk dira. Gure artean agian konturatu gabe pasatzen den horietako bat osteguneko, martxoaren 27an bada zatetasuna dena da. Antzerkiaren Nazioarteko eguna da eta bada zaletasuna gure herrian.

Ikusi besterik ez dago horretan jardun diren talde ama-

teurrak, EPA-ko Lan eta Lan, Emakumeen zentrokoa eta nola ez Kukuka. Azken honetan biltzen dira haur zein heldu gehien.

Antzerkia eta dantzaren egunak hirietan eta hiri handietan batez ere, ekitaldi entzutesuekin ospatu ohi dira. Askotan esaten da egun horretan solistik gogoratzen direla erakundeak kulturaz, dantza, musikaz, antzerki...

Zaletu edo zaletu ez izan, onartu egin behar da gurean dantza eta antzerkiak baduela tarte. Ulergaitza litzateke bestela Santa Ana parodiak edo sorgin-dantza adibidez hainbeste urtetan irautea. Herriar guztiek ez dute aitortuko artista sena dutela, baina askotan uste baino gehiago daukate. Ikusi besterik ez dago batez ere bealunaldi berrietan zenbat animatzen diren parte-hartza.

## Hitz eta pitz

## Antzerki zalea zara?



**Maria Martin**

Bai gustatzen zait antzerkia. Saiatzen naiz Manuel Lekuonara joaten. Emakumeen zentroko taldea edo Lan eta Lan ikustera gerturatu izan naiz. Nik uste nahiko zaletasuna dagoela herrian. Ni joaten naizenen behintzat bete egiten da aretoa. Ez dakit herrian bereziki zaleak garen baina herrian hainbat talde dago eta zerbaitekin adierazte zingoa da ezta?



**Jose Mari Tejeria**

Egia esan, ez dakit jende asko dabilen edo ez. Nik uste dut jende gaztea ibiltzen dela eta mugimendua badagoela antzerkiaren inguruan. Santa Ana parodian adibidez, urtero alaba ateratzen da eta egia den nahiko mordoak parte hartzen duela aspalditik gainera. Niri tarteak gustatzen zait baina herrian zaletasuna dagoela esatera ez naiz ausartzen.



**Cristina Galdin**

Herrian ez dakit zaletasuna dagoen baina nire etxean behintzat bai. Nik musikalki egiten ditut Donostiako talde batean eta etxeok ere ibiltzen dira. Nik uste dut herrian ez dela asko programatzen eta azkenaldian agian asko euskaraz eta jende gehienak ez du ulertzen. Jendearentzat erakargarriak diren antzerkiak ere ekarri behar direla uste dut.



**Oihana Igarritz**

Txikitian antzerkia egiten nuen eta niri asko gustatzen zait. Hala ere, utzi behar izan nuen. Nik uste dut zaletasuna badagoela baina gutxi programatzen da herrian. Sentsazioa daukat lehenago aukera gehiago zegoela eta indartu beharko litzateke. Herrian talde gehiago sartzea ere polita litzateke eta horrela herri mailan mugimendua oraindik handiagoa izango zen.

## Iruditan

## Antzerkizaletasuna



1952. urteko Santa Ana parodiako antzeleak. GALARDI FAMILIA

Herrian antzerki talde ezberdinak daude egin. Zalaletu taldeak dira, haur zein helduek eta kasualitate izango da baina bereziki neskek parte hartzen dute. Santa Ana parodian hala ere, gizonak ziren parte hartzaile nagusiak, Santa Ana izan ezik ia guztiak. Lasarte-Oriak antzerkiarekin duen lotuta Santa Ana parodia zahar honekin lotzen bada ere, ez da ahaztu behar egungo alkatea antzerki idazlea izateagatik saritua ere izan dela eta Euskal Herriko umeentzat famatuena diren palazoaren soletua ere Lasarte-Oria dela.

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



Gipuzko Kultur eta Euskararen Departamendua

## Argitaratzailea:

Txatun Kultur Elkarte  
Geltoki Kalea 4  
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legeko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

## txinbarri

## Eredakzioa:

Nerea Ezpigne, Maider

Azumendi, Jon Altuna E.

txinbarri@txinbarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Arriola

publizitatea@txatun.com

administrazioa@txatun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,

Ane Labaka, Maialen Arriola, Asier

Odriozola, Jose M. Hernandez,

Oihana Salazar, Pako Aizpirtarte,

Edu Galardi

Informazioa:

Xabier Amador

GIZARTEA



Froilan Elespe zenaren senide, lagun eta PSE-EEko alderdikideek lore sortak eskutan hartuta. ETAk tiroz hil zuen 2001eko martxoaren 20an, Lasarte-Oria. 54 urte zituela.

# Hamahiru urte ETAk Froilan Elespe hil zuela

*Senide, lagun eta alderdikideek urteroko lore-eskaintza egin diote hilerrian*

Omenaldi xumea egin zioten Froilan Elesperi familiak eta Gipuzkoa osoetik etorritako PSE-EEko militanteek larunbat eguerdian Lasarte-Oriako hilerrian. Haren lanak eta memoriak bizirik diratela gogoratzeko elkartu ziren hainbat lasarteoriatar eta sozialista ezagun.

### II. Froilan Elespe saria

laz Jesus Egigurenek jaso zuen lehenengoz Lasarte-Oriako PSE-Eeren eta Elesperen familiaren errekonozimendua bakegintzaren alde lan egiteagatik.

Aurtengoa LOKERI ematea erabaki dute. "Klubarentzat, modalitate eta kirok ezberdinetan aritzen diren entrenatzaileentzat eta kiroilarri guztientzat da oroirgarri hau, 25 urte baino gehiagotan

herriaren alde eginiko lan guztiagatik", adierazi zuen Jesus Zaballosek.

Amaitzeko LOKEko presidentek hunkituta jaso zuen Froilan Elespe saria: "Oso eskertuta gaude, alor instituzionalerik beti eduki izan dugu zuen bultzada eta babes osoa; estatu mailako Milia antolatuta guren onerak esaterako. Aurrera jarraitzeko indarra ematen digu sariak".



Egiguren, Andoni semea, Pelaez, Andres, Zaballos, Morales eta Diez Casa del Puebloan.

Horrengatik hil zuen ETAK doilorki, bokazioz lan egiteagatik. Garaiki aldatu dira, hobeto gaude, baina hiltzaileei ez diegu ezer zor".

Alor pertsonalean gizon "langile eta apal" gisan gogoratzen duela nabarmendu zuen Gipuzkoako PSE-Eeren idazkari nagusiak eta Elespe jaso dezakeen "omenaldirik onena" datorren urtean berriro ere Lasarte-Oriako alkatetzako sozialista bat edukitzea litzatekeela adierazi du.

Ekitaldia amaitzeko Internazionala ereserkiak abestu zuten larrosa gorri zapanduta zegoen Froilan Elesperen hilibiaren aurrean.

TXINTXARRI

**A**lboan izan zituen omenaldi osoan Tomasi Pelaez alargunak Josu eta Andoni semeak. Gainera, Gipuzkoa mailako politikari sozialistak eta hainbat herritar ere hurbildu ziren hilerria. Besteak beste, bertan izan ziren Jesus Zaballos eta Ana Urchuegia alkate ohiak, Jesus Egiguren, Denis Itxaso, Miguel Buen eta Iñaki Arriola. Azken honek hartu zuen hitza komunikabideen aurrean: "Sozialistok, eta baita Froilaneke ere, herri honetan bakea, askatasuna eta demokrazia lortzeko lan egin izan dugu beti.

# BAIK Aldundiak Zubietan izan ditzakeen asmoak zalantzan jarri ditu

**B**AI plataformako kideek ostiralean egindako agerrialdian Aldundiak Zubietan erakiki asmo duen zabortegearekin kritiko azaldu zen "Zabortegeak ez hemen ez inon" izeneko manifestuan. Gai honen inguruan Manuel Lekuonan hitzaldia antolatu dute asteazkenean 19:00etan eta honetan Jose Mari Puldain, Natxo Izeta, Luismari Ormaetxea eta Patxi Amantegi izango dira hizlarri.

BAI plataformaren agerrialdian Estixu Alkortak "atzo eta gaueko zinegotzi nazionalistak" batzen dituen talde honen helburuak laborgorazarazi nahi izan zituen. Horietaiko bat da lildergo

koperatiboa eta honen baitan, zaborren kudeaketa sartzeko dela azaldu zuen.

Horela Juan Mari Alkortak gaztelera irakurri zuen talde prestatutako manifestua eta euskaraz Jexux Artetxek.

Honetan jasotzen da Lapatz, Sasieta eta Urtetako hiruz zabortegeak itxeko Aldundiak "Bilduren gehiengo duen Hondakinaren kontsorzioak halere beste plan alternatibo bat inposatu nahi du Batzar Nagusietara eramanez". Manifestuaren arabera, Bilduk Zubietan eraustegia izan ezik, konpostu planta eta hondakinaren tratamendurako beste hainbat azpiegitura eraikitzeko asmoa

du baina horretaz gain, "zaborra enpaketatuta" eramango luketen zabortegeak bilta dabil. Mota honetako zabortegeak betiko zabortegeak baino okerragoak dira izan ere, enpaketatuta eramango duten plastikotatu izugarri bat jasan behar baitute. Akuferoak eta lurra kutsatzen duten gas kutsatzaileak eta lixibatzaileak botatzen dituzte eta kiratsa, zarata eta ingurugiroko poluzioa darioite. Gainera, behin zabortegea itxita eta gainazala "berrituta", lurrazpiko aktibitate kimikoak ehundaka urtez jarraitu dezake.

BAIK azpimarratu nahi izan du "oraindik ez dute



Ostiralean egin zuen plataformak agerrialdia.

esan non lurperatu nahi dituzten "hondakin bala" horiek. (...) Baina beldur gara Zubietako zelaigunean edo inguruan dagoen tokiaren bat izatea aureratuak kokagune, garraio kostuak merketzeagatik besterik ez baldin bada."

AISIA

**Haurrentzako kirol eskaintza Aste Santuan**  
2002, 2003, 2004 eta 2005 urteetan jaitako umeentzat udaleko kirol zerbitzuek eskaintza prestatu dute Aste Santurako. Apirilaren 14tik 25erako lan egunetan 9:30etatik 12:30ak arte kirol eta joko ezberdinak egin ahal izango dituzte parte hartzaileek. Bazkideek 76,50 euro ordaindu beharko dituzte. Izena ematea gaur zabalduz da eta hau egin edo informazio gehiago eskuartzeko 10:30etatik 12:30etara eta 17:00etatik 19:00etara egin ahal izango da. 20 partaide izango ditu gehienez taldeak.

GREBA

**LOMCE legearen aurka greba deialdia**  
Martxoaren 27an, osteguna, Lasarte-Oriako ikasleak LOMCE legearen aurka greba egitera deitu ditu ikasle Abertzaleak. IA-k salatu du Hezkuntza erformonek, bestak beste, euskarra hirugarren mailako hizkuntzat hartzen duela, Espainiar konstituzioa nahia nahiez inposatzen duela, azterketa eta emaitzen bidez gatzeten etorkizuna baldintzatu nahi duela edota eskolatan sexu banaketa egotea bideratzen duela. Horren harira, ostiralean gazte talde batek doluzko "Martxa Beltza" egin zuen udaltzearen lege hau gaitzetsi eta honi aurkako asmatasuna agertuz.

Hitzaldia

Gaiaz hitz egin behar delako plataformak eta herriarako hain zuzen, hitzaldia antolatu du asteazkenean Manuel Lekuonan 19:00etan. Herriararak honetara gerturaztea animatu nahi izan dituzte.



Berako Emaiza taldeak "Esperando a la Iglesia" antzeziana eskaini zuen ostiral gauean eta larunbatean berriz haur-antzerkiaren txanda izan zen Gorakada teatroaren "Aladino" obrarekin.



Orereta abesbatza entzuzera jende asko hurbildu zen.

## Antzerkia eta musika han eta hemen

### Orereta Abesbatza, Aladino haur antzerkia eta Esperando a la iglesia obra izan dira ikusgai

**Bi antzerki eta musika emanaldi bat izan dituzte herriko kultura zaleek asteburuko menuan. Orereta Abesbatzak Ama Brigitarren komentuan eskaini zuen kontzertua eta Esperando a la Iglesia eta Aladino obrak Manuel Lekuonan interpretatu zituzten.**

TXINTXARRI

**E**maitza taldeak "Esperando a la Iglesia" antzeziana eskaini zuen ostiral gauean Manuel Lekuonako areto nagusian. Lasarte-Oriako antzerki amateur zirkuituaren barneko ekimena izan zen, kasu honetan Emakumeen Zentroko antzer-

ki taldeak proposatuta.

Larunbatean berriz, haur antzerkiaren txanda izan zen. Zuzeneko musika, txotxongi-look eta aktoreen lana uztartu zituen Gorakada teatroak Aladino emanaldian.

Jende asko hurbildu zen kultur-etxera kalean ez baitzen giro, eta familia asko

antzerkia joateko aprobetxatu zuten aukera.

#### Musika

Danok Kide elkarteak antolatutako Musika Topaketa jardunaldietan haur eta gazte abesbatza gozatzeko aukera izan zen ostiralean Ama Brigitarren komentuan Orereta Abesbatzaren eskutik.

Imanol Elizasuren zuzendaritzapean kantu erlijiosoak eta polifonikoak eskaini zituzten eta asko izan ziren emandirira bertararuta ziren herritarrak.

## Okendo plaza lore eta landarez beteko da

**U**daberria iritsi da eta honekin batera landare eta zuhaitzak loretu dira. Honekin bat eginez, Lasarte-Oriako Udalak eta Behemendi Landa Garapenerako elkarteak Lore eta Landareen II. azoka antolatu dute.

Ostiralean Lasarte-Oriako Merkataritza saileko burua Gorka Lizarraga, Behemendi elkarteke Ainhoa Amundarain eta Urtinea lorategiko Bixen Odriozolak aurkeztu zuten ekimena.

Loreak, landareak eta zuhaiskek Okendo plaza hartuko dute berrito ere, martxoaren 29an, goizeko 9:00etatik 14:00etara.

#### Postuak

Hamar saltoki izango dira aurtien plaza: Aranburu, Zumoyar, Lurberri, El Bosquecito, Iruñe borsai, Landarbaso, Urtinea, Montañes, Alcibar eta Aritzuren.

Berrikuntzen artean, barazirako ekolojizko landareak eta kosmetika eta



Lasarte-Oriako Udaleko, Behemendi elkarteke eta Urtinea lorategiko ordezkariak aurkeztu zuten azoka berezia Urtinean.

sendagai naturalak eskaintzen dituen postu bat ere izango dela azpimarratu zuen Behemendiko ordezkariak.

Gurasoak landareak ikusten ari diren bitartean, haurrei zuzendutako tailer eta jokoak ere izango dira. "Iaz kimuen landaketa tailerrak arrakasta

handia izan zuen", azaldu dute.

**Lehen sektorea eta ekonomia** Behemendik eta Udalak lehenengo sektoreko ekoiizleen lana ezagutzera eman nahi dute. "Salmenta puntu izateaz gain, baserriko produktuen

promozio eta erakusketa-gune ere izan behar dute," adierazi zuen agerpenean Amundarainek.

Honetaz gain, herritarren aisia eta ekonomia sustatzea ere dute helburu.

Joan den urtean Udalak tokiko ekonomiaren inguruan

izandako parte hartze bilere-tatik larunbat goizetan antolatutako ekimenek udalerriko merkataritzan modu positiboan eragiten zutela ondorioztatu zen. Eta hori horrela izanda, urte osoan zehar ekimenak antolatzeari ekin zion Udalak.

Gorka Lizarragak gogoratu zenez, "herrian giroa sortu eta herritarrak bertan erosketak egitea sustatu nahi dugu".

#### Gonbidapena

Azoka berezi honetako antolatzaileek eta Urtinea lorategiko lagunek herritarrak eta inguruko herrietako jendea gonbidatzen dituzte martxoaren 29an, goizeko 9:00etatik 14:00etara Lasarte-Oriara hurbildu eta lore eta landareetaz gozatu eta erostera.

"Udaberria iritsi da, kolorez beteko dira mendik eta kaleak eta balkoia apaintzeko garaia da ere. Beraz, anima datzezela landareak erostera," aipatu zuen Urtineko kideak.

**2.**  
FASEA

[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)



**herritarrekin**

martxan

en marcha

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

**PARTE HARTU  
ETA IRABAZI**

Parte-hartzaile guztien artean  
MagU/Lurraldebus tartela  
kargatzeko 20 euroko herenak  
zetz egingo dira.



**GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?**

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

**Lasarte -Orian**

**EGUNA: Apirilak 9**  
**ORDUA: 18:30ean**  
**LEKUA: Villa Mirentxun**

## EUSKAL KROSA.-

## Eneko Kastroren omenezko krosa, ostarte artean

Landaberri ikastolak antolatuta Euskal Krosa egin da beste urtebetez Atsobakar auzoan

Goiza ilun eta petral samar hasi bazen ere, zaparrada eta zaparrada artean irekitako ostarteak probestu zituzten atzo herriko atletak gazteek lasterka egiteko. Euskara eta kirola bultzatu asmoz, giro bikainean burutu zen Eneko Kastro zenaren omenezko XVII. Euskal Krosa Atsobakar auzoan. Maila guztietako lasterketak amaitzean eta bakoitzari zegokion domina lepoan, opari banaketa egin zuten goizari amaiera emateko.

## TXINTXARRI

Iaz baino gutxiago, baina aurten ere herritarrek hurbildu ziren igande eguerdi aldera Atsobakar parkera. Lasterkari gaztekoen guraso, aitona-amonak, senide eta lagunak ez zuten galduta euren korrika egiten ikusteko aukera. Txalo zaparradaka hartu zituzten guztiak helmugan, baina hobe zuketuen kirolariak zaparrada bakarrak txaloenak izango balira...

Krosa egin aurretik eta baita ondoren ere, euria egin zuen goian behean. Hala ere, esan daiteke ateri egin zituzten kros guztiak, ia batera busti gabe. Lurra labainkor samar zegoen ordea, baina ziorionez ez zen eroriko larri-rik izan.

## Euskara eta kirola

Bi hitz horiek definitu izan dute Eneko Kastroren omenezko Krosa aurreko hamasei edizioetan, eta hamazazpigarrena ez da gutxiago izan. Urteroko izaera mantendu du aurtengoan ere Euskal Krosak eta amaieran ez zen lasterka omenentzat saririk izan.

Hori bai, parte-hartzaile guztien artean kirol materiala zozkatu zuten behin lasterketa guztiak amaituta. Eneko zenaren Margari amak banatu zituen aipatutako opari eta muxur saridunen artean.

## Parte-hartzea

Lehiakortasunaz gaindi, txiki-toxek kirola eginez gozatzea izaten du helburu antolatzaileek. Aurtengoan parte-hartzea handia izan da, baina beste



Goizean agertu ziren ostarte eta eguzki izpiak aprobetxatu zituzten lasterlari gazteok korrika egiteko.

urte batzuetakoa baino baxuxeagoa. Izan ere, goizean goiz eguraldia ez zen korrika egitera joateko egokiena.

Dena den, hamar bat lasterketa egin zituzten adinaka banatuta. Atsobakarreko parketan eta inguruetan prestatuta zegoen 500 bat metroko barrutiari hainbat itzuli eman behar izan zizkieten guztiek. Amaitzeko, antolatzaileek eskerrak eman zizkieten laguntzen aritu zirenetik.



Iaz baino baxuagoa, baina aurten ere parte-hartzea handia izan da krosaren.

## BORROKA/JUDO.-

## Curiel Espainiako txapelkunorde

Espainiako Borroka Txapelketa jokatu zen martxoak 15ean, San Agustín del Guadalix, Madril. Bertan Ama Guadalupeko taldean dagoen Amaia Curiel lasarteoriatarra izan zen lehian.

Finalera iritsi zen baina belauko lesio bat dela eta, ezin izan zuen borroka amaitu. Borrokalariaren sendeiek jakitea eman digutenaz, otsailak 22an uko egin zion Sanboko Espainiako txapelketan parte hartzeari, belaua osatzeko aldera.

Era berean, otsailak 28an Hondarribiko Udalak "Txema Olazabal" sarien barne aipamen bat eman ziola ere adierazi digute.

Saria kirolariari zuzendu da eta urtean zehar lortutako emaitzak saritzen ditu, baita kirolari bizitza eskaini dioten pertsonak ere.

## Judoa

Bestalde, martxoaren 16an,



Gipuzkoako txapelketan lehiatu ziren infantilak.

Arg.: G. Aristegi

Pasaia Donibanean infantil mailako Gipuzkoako txapelketa burutu zen. LOEko sei judoka izan ziren lehian eta hiruk domina eskuratu zuten.

Alex Saseta bigarren izan zen bere mailan eta Euskadiko txapelketarako txartela eskuratu zuela ere aipatu digu Gorka Aristegi entrenatzaileak.

Andere Garrido eta Garikoitz Menak aldiz, brontzezko dominarekin joan ziren etxera.

Judoka hauetaz gain, Yeray Mendibe, Unai Posada eta Iker Sanchez izan ziren txapelketan, baina ez zuten zortirik izan.

Txapelketa honen ostean, eskolarteko alebina saioa izan zen. Sergio Hernandez, Lucas Morales, Julien Espinosa, Erik Bermejo, Alex Alonso, David Merino, Martin San Sebastian, Unax Pikabea, Arkaitz Santos eta Aiora izan ziren parte hartzen.

## LABURRAK.-

## Axier Arteaga Soraluzen txapelkunorde

Axier Arteaga pilotari gaztea martxoaren 18an, lau terdiko Soraluzeko torneoko finalean lehiatu zen Bergaran. Iker Iribarri izan zuen aurrez aurre. Partida ederra izan zen eta Arteagak hemeretzi berdinduak zeudela, partida galduarazi zioten bi akats egin zituen, 22-19.

Axier Mallabian Biharko Izarrak txapelketan, Tolosako Miguel Soroa Oroimenezkoan, Zumarragako Goñi Oroimenezkoan eta Gipuzkoako selekzioarekin GRAVNI lehiaketan ere parte hartzen ari da. Azken txapelketa honetan, binakako ezker parteko lehen partida jokatu zuen. Jubenil mailan lehiatzen ari da bikote Jon Erasun duela. Lehengo astean, Nafarroako bikoteari 22-18 irabazi zioten.

Baina ez da lasarteoriatar bakarra. Aritz Solano eta Mikel Landa trinket modalitatean ari dira parte hartzen. Aritz Solanok jubenil mailako banakakoa jokatu zuen eta 35-25 irabazi zion pilotari nafarrari. Partida gogorra eta oso lehiatua izan zela aipatu digu, Joxe Felix Solano Itzako arduradunak.

Mikel Landa berriz, senior mailako bikotean Enrike Huicirekin batera lehiatu zuen. Ezin izan zuten askorik egin eta 40-19 galduta zuten.

## Gartzia hirugarren Arriaranen

Lasarte-Oriako korrikalariak ez dute astedenik hartzen. Lehengo asteburuan hainbat lasterketetan izan ziren parte hartzen eta bitan podiumeko hirugarren mailan izan ziren.

Larunbatean martxoaren 15ean, Arriarango III. Mendi lasterketan Endika Gartzia herritarra 3. postuan iritsi zen helmugara.

Igandean, Libre lasterketa ospatu zen Hernanin. 5 kilometroko proban Jon Altuna hirugarren izan zen.

Bestalde, hainbat izan ziren Donostian Udaberri lasterketan parte hartu zutenak. Azkarrena, Raul Gomez Margallo izan zen eta 9. postua eskuratu zuten.

— Agenda —

Asteartea 25, 19:00etan, Elebets Topagunea



Nazioarteko egoera ulertzen

Ukrainan, Venezuelan eta Sirian gertatzen ari diren gatazka azaltze aldera, Elebets Topaguneak "Mundua pil-pilean. Jardunaldi Internazionalistak" hitzaldi zikloa antolatdu du. Asteartean Jon K. Billebaetia historialariak "Ukrainako egoera. Matxinada edo kolonizazioa?" solasaldia eskainiko du.

Musika

**ZULO ARETOA**  
**Ostirala 28, 20:00etan**  
 Hey ya esnatu! bideo proiektzioa eta Mixt6T taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.  
**Ostirala 28, 23:55ean**  
 Xemark Dj-aren musika elektronika saioa izango da.  
**Larunbata 29, 22:00etan**  
 Tutan Come on eta Eraso taldeen rock kontzertua.

**ELEBELTZ TOPAGUNEA**  
**Larunbata 29, 22:30ean**  
 MeltDown, Madeleine, Kokotean Kesk eta Hyedra taldeen emanaldietaz gozatzeko aukera.

Azoka

**OKENDO PLAZA**  
**Larunbata 29, 9:00etatik 14:00etara**  
 II. Lore eta Landare azoka ospatuko da. Haurrentzako joko eta tailerrak izango dira.

Lasarte-Oria

Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Ostirala 28, 22:00etan**  
 Okendo Zinema taldearen denboraldi berriko saioa, "La gran belleza" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan, 4,70 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.  
**Igandea 30, 17:00etan**  
 Haurren zinea atalean, "Lucius Dumben berebiziko bidaiak" filma izango da. Sarre-

ra, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Euskaraz.  
**Igandea 30, 19:30ean**  
 Helduentzako zinea, "La gran belleza" filma ikusteko aukera izango da. Sarre-  
 ra, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Ipuin-kontalaria

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Asteartea 27, 18:00etan**  
 3-5 urte bitarteko haurrentzat ipuin irakurtzeko izango da.



II. Aste Musikala

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Ostirala 28, 20:00etan**  
 Ainhoa Merzero sopranoak emanaldia eskainiko du. Alberto Saez piano jolearen laguntza izango du. II. Musika asteako ekitaldia.  
**Larunbata 29, 20:00etan**  
 Arimaz kamara orkestrak eta Santa Gaztelia abesbatzak kontzertua eskainiko dute.  
**Igandea, 12:00etan**  
 Ilunbe akordeoi orkestra, Zero Sette akordeoi orkestra eta Udal Musika eskolako trikitixa ikasleen emanaldi izango da.

Astigarraga

Literatura solasaldia

**UDAL LIBURUTEGIA**  
**Astelehena 24, 19:30ean**  
 Jeanette Winterson Lumen-en "¿Por qué ser feliz cuando puedes ser normal?" liburuaren inguruko solasaldi izango da. Gaztelaniaz.

Zine Foruma

**KULTUR-ETXEA**  
**Asteartea 25, 18:00ean**  
 "Mis tarde con Marguerite" filmaren bideo foruma egingo da. Doan.

— Herritarren txokoa —

Odol-ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan martxoaren 31ean, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza Zumaburuko Arantzazuko Amaren Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da gaur, astelehena, arratsaldeko 17:00etan.

Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plaza izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.  
 "Ez zaitze lekuri gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

Megaba elkarte kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrek animatzen dituzte honetan parte hartzea.  
 Horretarako [www.megaba.es](http://www.megaba.es) weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.  
 Erketz-eko Lagunak taldeak asteartean ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideak, berriz ostegunetan.  
 Entseguak Zumaburu ikastetxeako gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.  
 Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.  
 Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858  
 tintxarri@tintxarri.info

— Hemeroteka —

Duela 1005 ale

Herri-ekimenak bake-prozesuaren oinarri izan zitekeen aztertu zen 1996an TINTXARRI-n.

1995ean Altsasun Maroñoko akordioa sinatu zen, bertan sentibiltate desberdineko hainbat taldek bildu ziren, horietako batzuk Senideak, Elkarri eta Gestorak gure herrian lan taldeak zituzten.

Gure herrian Danok Kide elkarteak Euskal Herriko egoerari eta bakeari buruzko hitzaldiak antolatuz zituen. Hauetan gaia gizartearen ardura ere dela frogatu nahi izan zuten.  
 Erreportaje honetan talde hauen helburu, ekintzak eta irizirik batu zituen TINTXARRI aldizkariak galdere bati erantzunez, "Gizarte-mugimenduek batasunik lor dezakete bake-prozesua helburu izanik?"

Hauen ustez, kontrako jarrerak dituzten taldeak elkarrikizketan hasia posible zen, baina bat etortzea zaila indutuzen zitzaizen gehieni. Izan ere, gutxiengo batzuk ezarri beharko liritekeela uste zuten, baita ekintza erakitzailera eta ez inposatzailea izan behar zuela ere. Baina oso argi zeukaten kasu batzuetan inork jarrera aldatzeko asmorik ez zuela.

Honetaz gain, Maroñoko akordioan sinatu ziren puntuak eta helburua ere agertzen dira, hala nola, elkarrikizketak mekanismo erabiliz eta indarreko alboratzea, elkarrikizketaren prozesuaren edozein proposamen kontuan hartzea edo euskal gizartearen partehartzea aktiboa.



Itoitz Rodriguez LOKEko atleta, Espainiako txapeladuna

# “Eskuetatik ihes egiten ikusi nuena lortu dut”

Itoitz Rodriguez pista estaliko Espainiako txapeladun berria da 400 metroetan, jubenil mailan. Euskadiko errekorra (48,99) eta Espainiako *all-time* rankingeko 5. postua erdietsi ditu

*Dinamita dago metro eta 80 zentimetro eta 60 kilo eskas horietan. Dinamita hanketan, eta erloju suitzarren zehaztasun eta segurtasuna buruan. Horrela definituko genuke Itoitz Rodriguez LOKEko atleta gaztea. Urtez urte lehertzen ari den txapeladuna. Urrezko dominak pixkanaka eta egunero irabazten ditu Michelingo moduloan entrenamendu bakoitzean duen gutzia emanaz. Zortzi urte daramatza zapatikak lotzen Amaia Andresen aginduetara lehenik eta Oscar Goikoetxea prestatzailearen esanetara orain. Pausoz pauso bidea egin du Rodriguezek.*

Jon ALTUNA EGITEGI

**I**bili, erori eta altxatzearen legea guttiatik ezagutzen du. Bihotza, burua eta kemenarekin nahi den lekura iritsi daitekeenaren adibide da Itoitz Rodriguez. Martxoaren 9a izan zen egun handia, lekua Valentzia.

## Zenbat lan dago urrezko domina honen atzetan?

Urte asko izan dira gogor entrenatzen. Hasiera batean bakarrik egindako lana eta orain Gaizka Ormazabal eta Jon Altunarekin entrenatuta.

Egun gogorrek egon dira, zailak. Inoiz ez dut uztea pentsatu, baina frustrazio handiak bizi izan ditut. Ovie-do edo Castelloneko Espainiako txapelketen esaterako, gauzak ez zitzaizkigunean atara. Urte osoko lana pikutara joaten ikusi izan dut instant batean. Baina altxatu egin behar da, entrenatzen jarraitu eta gauzak iristen direla ikusi dut.

**Erori zinen, altxa eta irabazi. Sekula etsi behar ez denaren eredu zara.**

Bai, nik uste dut baietz. Inoiz ez dut etsi, berriz jarraitu dut nire ilusioak betetzeko bororak. Eskuetatik ihes egiten ikusi nuena azkenean iritsi zait. Ametsa bete dut.

**Kontaiguzu Valentziako egonaldia pixka bat, nola izan zen? Finalaurrekoak larunbatean, finala igandean... Tripa-jate handia izaten da ezta? Batez ere faboritu nagusietakoa zarenean...**

la gutziz argi neukan txape-

lketaren arteko gauza izango zela. Jesus Serranok 48,74ko marka zuen, baina aire librean egindako denbora zen. Pista estaiko marka onena nik neraman (49,11). Gaintzeokoak atzetik, segundu batera geneuzkan.

Semifinaletan urduri nengon, presio handia baita faboritoetako bat zarenean finalaurrekoetan kalean gelditzea. Egia esan serie nahiko erreza tokatu zitzaidan, lasai irten eta nire markatik urrun ibili nintzen, baina lortutako lehen postuarengatik finalera zuzenean pasa nintzen.

## Eta finalean husteru.

Finalean hasieratik topera irten nintzen. Lehenengo hasi eta ahal izanez gero lehengo bukatzea zen asmoa. Nire marka pertsonala egitera joan nintzen, eta niri irabazteko oso marka ona egin beharko zutelara argi geneukan.

**Eta begira, 48,99ko marka puska, urrezko domina, Euskadiko Errekorra eta Espainiako *all-time* denborretan bosgarrena egin zuenuen. Handia da hori.**

Ilusio handia egin dute errekorrek. Ez nuen espero. Pentsa, aurtengo helburua 50 segundutik jaistea zen eta begira, sub 49 naiz.

## Zeini eskaini nahiko zenieneko domina hau?

Lehenengo nire buruari. Azkenean irabazi dudalako domina hainbeste lan egin eta gero. Nola ez, eskerrak familiari, Oscar eta Amaia entrenatzailei eta taldekide eta lagun gutzietan. Beraien babesik gabe halakorik ez nuke lortuko.



Itoitz Rodriguez erdian, Amaia Andres LOKEko presidentea olimpikoa eta Oscar Goikoetxea prestatzailearekin.

## Orain, udaberrian, aire libreko denboraldia hasiko duzue, zein dira zure eronka nagusiak?

Aire librean eronka nagusia Azerbaijanera, Bakura (Gazteen Olimpiadetakako sailkapen proba europarrean) joateko gutxieneko marka egitea da. Gertu nago, bederatzitik ehuneko jaitsi behar ditut 48,90 egiteko. Maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean izango litzateke txapelketa. Bertan hartu nahi dut nire gorputzaldia onena.

## Nola definituko zenuke 400 metroetan sentitu eta sufrizten dena?

Luze egiten da, baina lasterketa polita da. Azkarra, baina erresistentzia eskatzen duena. Amasa ondo kompasatuta eraman behar da eta hankak nekatuta dituzela korrika egiten ere jakin egin behar da.

## Txapelketen aurretik motibatzeke ze teknika erabiltzen dituzu?

Normalen deskonektatu egiten dut. Lagunekin beste edozer gauzak hitz egin eta musikak ere asko laguntzen dit, karrera aurreko momentuetan eta baita aurreko gauean ere.

**Izatez lasaia eta zure buruarekin segurtasun handia duen atleta zarela dirudi. Hala da hori edo katamaloa besterik ez da?** Ni oso urduria naiz izatez, baina esperientziarekin ikasten duzu zure burua lasaitzen. Jendearen aurrean lasai nagoela erakusten saiatzen naiz, Amaia Andresen teknika da hori, bestean aurrean seguru agertzea. Oro har, psikolo-

## “Ona dena eta gaitasuna duena pista txarrean, onean edo modulu batean entrenatuta ere ona da”

gikoki ongi prestatuta nagoela uste dut.

## Non aurkitzen duzu egunero-egunero entrenatzerako joateko motibazioa?

Zaila da motibazioa aurkitzea agian. Baina behin aurkituta, izugarriko gogorekin joaten naiz entrenatzerara. Zerbitu jostatzen bazaizu beti saiatzen zara ahalik eta ondoen egiten.

## Batxilerra egiten ari zara. Etorikuzuean zer ikasteko asmoa duzu?

Kirolarekin zerikusia duen ikasketaren bat. Atletismoaz ez naiz biziko, hori oso argi daukat. Atletismoa erabili dezaket ikasketetan laguntzeko hori bai. Soinketako irakaslerekin edo IVEF ikasi nahiko nuke esaterako.

**LOKE klub txikia izanagatik, emaitzak bikainak dira Oscar Goikoetxearen aginduetara. Zazpi jubenil zarete taldean eta seik egin duzue Espainiako txapelketarako gutxieneko marka. Sekreturik?**

Nik uste meritu gutzia Oscarrek duela. Bakoitzak bere gaitasunak ditu, bere nibela eta merituak, baina entrenatzaileak oso paper garrantzitsua du, Zazpi atletetatik Espainiakoak sei eramatea ez da edozeinek lorzen. Lan bikaina egin du. Bai bestean

kasuan zein nirean, zati handi bat berea da. Bera da prestatzen nauena, nik korrika besterik ez dut egiten.

## Dena den, babesle aldetik eta ekonomikoki larri dabiten taldea da.

Nik animatuko nuke jendea gure taldea babestera. Herriko jendea batez ere. Izan ere herriaren izena ari gara Espainia mailan zabalten. Ez gara asko baina maila onean ibiltzen gara eta laguntza ekonomiko bat oso ongi etorriko litzaziguke aurrera jarraitzeko.

## Atletismo pista berria behar du Lasarte-Oriak?

Nik uste dut baietz. Baina ez dira garai onak gauza hauei buruz hitz egiteko. Ulertzen dut ez egitea, momentu hauetan beste lehenetasun garrantzitsuago batzuk badaudeko gizaratzen.

Ona dena eta gaitasuna duena pista txarrean, onean edo modulu batean entrenatuta ere ona da. Baina pista borobil bat beharko genuke, egia da, batez ere serieak egiteko.

Futbolak behar zuenean egin zen zelaiaren eraberritzea eta ongi iruditzen zait, beharrezkoa. Gainera erregulazio jokatzeo. Gainera erregulazio zuten. Baina atletismoak ere behar duela uste dut are emaitza hobekak izateko.

*“Egun gogorrek egon dira, zailak. Inoiz ez dut uztea pentsatu, baina frustrazio handiak bizi izan ditut. Urte osoko lana pikutara joaten ikusi izan dut instant batean”*